



# taxi kitto!



**Amaiur Mayo,  
lanak eman du fruitua**



Euskara Elkarte

### Argitaratzailea

"...eta kitto!" Euskara Elkarte  
Urkizu, 11 - solairuartera.  
20600 Eibar  
Tel: 943 206776.

### Erredakzio kontseilua

Maider Aranberri,  
Ana Aizpurua,  
Ekhi Belar eta  
Eibarko ikastetxeak.

### Administrazioa

Marisol Uriarte.

### Erredakzioa

Maider Aranberri eta  
Ekhi Belar.

### Maketazioa

Ana Aizpurua.

### Azaleko argazkia

Ekhi Belar

### Copyright-a

Txikitto!

### Lege-gordailua

SS-1111/96



Gipuzkoako Foru Aldundia



Nekane negarrez dator  
eskolatik eta amak galdetu  
dio:

- Zer duzu, Nekane, horrenbeste negar egiteko?
- Andereñok zigortu egin nau...
- Hara! Eta zergatik zigortu zaitu?
- Bere galderei erantzuteagatik.
- Gaizki erantzun diozu orduan...
- Ez, ez. Nik ondo erantzun diot... Sagua bere poltsan zeinek sartu duen galdetu du eta ni izan naizela erantzun diot.



Irakaslearen eta  
ikaslearen arteko  
elkarrizketa:

- Zenbat hezur dauzka zure gorputzak?
- 208 -ikasleak.
- Burugogorra! Ez al nizun esan atzo 207 hezur ditugula?
- Bai, baina... gaur oliba-hezur bat irentsi dut



Aitona hilzorian omen  
zegoen, eta ohetik  
begiak ireki eta hor  
hasten da berbetan:

- Maria, hemen zaude?
- Bai, bai, hemen nago, hemen nago.
- Andres, hemen zaude?
- Bai, hementxe nago aitona, hementxe nago.
- Ainara, hemen zaude?
- Bai, lasai, aitona. Hemen gaude denak.
- Denak zaudete hemen?
- Bai, bai, zure ondo-ondoan, aitona.
- Eta denak hemen bazaudete, zer egiten du pasilloko argiak piztuta??




Kartzelara iritsi berria den batek  
galdetzen dio beste bati:


- Eta zu zergatik zaude hemen?
- Ez didatelako irteten uzten!






 Neska batek amari:  
- Ama, badakizu? Nire idazlanak irakaslea zeharo hunkitu du!  
- Benetan diozu??  
- Bai, horixe! Negargarria dela eta pena ematen duela esan dit!




 Andereñoak Patxiri:  
- Esaidazu, nola banatuko zenituen hiru patata hamar lagunen artean?  
- Oso erraz! Purea egiten!




 Eroetxean zoro batek erizainari:  
- Erloju hori zuzen dabil?  
- Bai, oso zuzen.  
- Orduan, zertarako ekarri dute hona??




 Ume bat arduratuta heltzen da etxera eta amari esaten dio:  
- Ama! Ama! Eskolan oso despistatuta naizela esaten dute.  
- Ez eginkasurik eta egon lasai! Baina, barkatu, ni ez naiz zure ama, zure auzokidea naiz.



 Hortzak garbitzeko eskuilak esaten du:  
- Batzuetan munduko lanik txarrena dudala uste dut.  
Eta komuneko paperak:  
- Bai?? Ziur zaude???




 Banpiro batek, ahotik odola dariola ikusi du bere adiskideak:  
- Aizu, baina non lortu duzu halako odol pila?  
- Zatoz nirekin eta ikusiko duzu! Kaleko horma bat erakusten dio esanez:  
- Ikusten duzu horma hori?  
- Bai.  
- Ba nik ez dut ikusi.




# Denborapasak



## MARRAZKIA OSATU







## ASMAKIZUNAK



Gorputzaren organo bat.



Zer ekarri duzu jateko?



Norekin joan zara zinemara?



Zer jaten du ardiak?

# Denborapasak



## 6 desberdintasunak




## HIZKI-ZOPA


Aurki itzazu hizki-zopan honetan  
Eguzki-sistemako bederatzi planeten izenak:



G	O	A	R	E	E	R	P	J	S	B
T	N	R	H	W	T	N	L	U	Q	U
V	R	R	O	F	T	H	U	P	U	Z
N	U	A	M	N	B	Z	R	I	E	T
Y	T	Z	I	E	U	Q	R	T	C	X
H	A	I	L	P	R	T	A	E	D	D
I	S	T	K	O	L	K	P	R	P	P
D	X	R	N	Q	B	U	U	E	H	S
U	V	A	J	S	N	C	T	R	N	G
S	R	U	J	D	Y	T	Z	O	I	S
U	Q	E	T	R	A	M	J	L	N	O




# MARGOTZEKO



1 2 3 4 5 6 7







ni bai artista!

## Labirintoa

Oso oso erraza da honako eskulan hau. Material gutxi beharko dituzue, erraz lortzeko modukoak, eta behin zuen labirintoa eginda orduak eta orduak emango dituzue zuen jostailu berriarekin jolasten. Egin proba!



### OSAGIAK eta MATERIALA:

- Erabiltzen ez duzuen CD kutxa bat.
- Fimoa (laberako plastilina).
- Koloretako argizari-tirak (fimoa bera edo plastikoan pegatzen den beste material bat izan daiteke).
- Artaziak eta koloretako papera.




### Nola egin:

- 1.- CD kutxa hustu. Argizari-tirekin labirintoaren ibilbidea egin. Lehenengoa egiteko, nahi baduzue, Interneten dauden plantillak erabili, baina irudimenarekin nahi duzuen ibilbidea egiteko gai izango zarete.
- 2.- Fimoarekin bolita txikiak egin, labirintoan sartzeko. Beste edozein bolita ere erabil dezakezue.
- 3.- Eta amaitzeko, apaindu zuen labirintoa. Kutxaren azpialdean koloretako papera jar dezakezue politagoa gera dadin. Gustuko duzuen moduan dekoratu: zenbakiekin, marrekin edo bestelako marrazkiekin.



ni bai artista!



## Apar magikoa



Esperimentu dibertigarria proposatzen dizuegu. Zientzialari bihurtuko zarete une batez, eta esperimentu erraz eta segurua egingo duzue. Probatu, probatu!

### MATERIALA:

- Plastikozko botila bat (freskagarri batena, adibidez)
- Iturri bat, asko ez zikintzeko
- Ura
- Legamia
- Ur oxigenatua
- Jakientzako koloregaia
- Detergentea

### Nola egin:

- 1.- Jarri plastikozko botila iturri batean.
- 2.- Nahastu ontzi batean bi koilarakada ur epel eta koilarakada bat legamia.
- 3.- Sartu botilan katilukada erdi ur oxigenatu, %6koa, 4/5 tanta koloregai, eta detergente zorrotada bat.
- 4.- Magia egiten hasteko prest? Sartu legamia urtua botilan, eta hara: sumendi bat izango duzu erupzioan! Harrigarria!

Zuk *galdetu*,  
guk *erantzun*

Nolatan ez dira hegaztiak kable elektrikoekin elektrokutatzen?

Hegaztiak kable elektrikoen gainean pausatu ohi dira maiz, eta ez dira elektrokutatzen. Baina ba al dakizu zergatik? Hara, gakoa da hegaztiak kable bakarraren gainean egoten direla, eta elektrokutatzeke, ezinbestekoa dela zirkuitu osoa ukitzea; alegia, ez kable bakar bat ikutzea, bi ikutzea baizik. Hegazti batek karga positiboko kable bat eta karga negatibo edo neutroko beste bat ikutuz gero, korrontea haren gorputzetik igaroko litzateke, eta elektrokutatu egingo litzateke. Hegaztiak zirkuitua osatzen ez dutenez, ordea, ez dira elektrokutatzen. Bitxia, ezta?





# sukal-saltsan

## Tarta izoztua

Gaileta tarta izoztua egitea erraza da eta bikaina uda egunetarako, urtebetetze tarta bezala, ospakizun baterako edo, besterik gabe, kapritxo bat emateko.



### Nola egin:

- 1.- 200 ml esnegain muntatzen hasiko gara, eta, orduan, azukrea gehituko diogu eta muntatzen jarraituko dugu zorua egin arte. Zenbat eta hotzago, orduan eta errazagoa izango da. Orain gailetak esnearekin bustiko ditugu, banan-banan.
- 2.- Hartu gaileta bat esnegain pixka batekin, eta horren gainean gaileta heze bat eta esne-gain geruza bat jarriko ditugu. Horrela, eragiketa errepikatuko dugu nahi ditugun gailetak egin arte. Kontu handiz etzan egin dugun dorrea, eta erabat estali gainerako esnegainarekin.
- 3.- Dena izozkailuan sartu gutxienez 2 orduz. Denbora hori igarota, txokolatezko bainua hartzen dugu. Esnegaina berotu, 120 ml.-koak,



### OSAGAIAK :

- Gaileta pakete 1
- Esne pixka bat
- 200 ml. esnegain muntatzeko (krema, esne-krema)
- 50 g. azukre
- 120 g. txokolate edo postreetarako txokolate estaldura
- 120 ml esne gain
- Koloretako txokolateak edo gailetak, edo txokolatezko pipitak.

eta txokolatea zatika gehitu. Azken hori urtu arte mugitu. Minutu batzuk eman, ehundura pixka bat har dezan.

- 4.- Plater handi bat prestatu, eta horren gainean sareta bat edo, horren orde, baso lau bat, ez oso altua, ahuspez. Izozkailutik tarta atera eta kontu handiz jarri saretaren edo edalontziaren gainean. Txokolatea epelduta dagoenean, gailetik isurtzea besterik ez zaigu geratzen, tarta guztia estaltzeko moduan, eta platerean erortzen dena aprobeitza dezakegu. Ondo estalita daukagunean, utzi arnasa pixka bat hartzen eta utzi tantaka, eta kontu handiz jarri plater baten gainean, edo labe-papera duen iturri baten gainean. Nahi duzuenarekin apaindu eta izozkailuan sartu, gutxienez 2 orduz.



## Xixona turroizko gailetak

Gabonetarako falta da oraindik apur bat, baina laster aurkituko dituzue turroiak supermerka-tuetako apaletan. Behin hori izanda, errezeta gozo-gozoa egingo duzue, seguru!

### Nola egin:

1.- Gurinak giro-tenperaturan egon behar du, atera hozkailutik errezeta egiten hasi aurretik (gutxienez bi ordu lehenago).

2.- Sukaldeko robot edo irabiagailu bat erabilia, irabiatu gurina eta azukrea guztiz nahastuta egon arte. Turroia gehitu eta jarraitu irabiatzen.

Gehitu arrautza eta irina eta irabiatu guztiz integratuta egon arte.

3.- Forma emateko bi aukera dituzu; luzatu masa arrabolarekin (zentimetro erdiko lodiera lortu arte) eta moldeekin moztu -honetarako masa ordu betez hozkailuan sartzea komeni da-. Beste aukera bat da bola txikiak egin eta zigiluekin zapaltzea (edo edalontzi batekin zapaltzea).

4.- Labea piztu 180 graduan eta utzi berotzen tenperatura horretara iritsi arte. Labekatu gailetak 10-12 minutuz. Utzi erretilu batean hozten.

Eta hor dituzue! Gaileta zoragarriak!!



### OSAGAIAK:

- 150 g gurin
- 75 g azukre
- 300 g xixona turroi (zatituta)
- Arrautza bat
- 375 g irin








# zer irakurri

Juan San Martin Liburutegia

6 urtetik aurrera

## Kornelio

Ipuin honetako krokodilo protagonista da bere komunitateko guztien artean zutik ibiltzen den bakarra. Maila horretatik, gainerakoek ikusi ezin dituzten gauzak ikusten ditu. Besteek, ordea, ez diete garrantzirik ematen ez asmo-zabaltasunari, ez eboluzionatzearen abantaileri ere. Gainerakoen konformismoaren aurrean, Korneliok aurrera egin nahi du, pozik laguntzen dioten beste animalia batzuen trebetasunetatik ikasiz.



## Lagun berriak

Beltzen familia bat beste auzo batera aldatu da. Bere urtebetzetzean, Rafi txikiak ez du nor gonbidatu oraindik ez due-lako lagunik, baina gurasoek opari egindako erremintei esker, erabaki du bere lagun propioak egitea eta irudiak eraikitzea gai birziklagarriak erabiliz. Egun batean Ki ezagutuko du, auzoan bizi den Asiako bikote baten alaba, eta honek bere burua eskainiko dio panpinak janzteko arropa josteko. Hala, auzokide izateaz gain, lagun min ere bilakatuko dira, komunean duten zaletasunak batuta; hain zuzen, sormenak.



8 urtetik aurrera

## 100 kontu ondo ezagutzeko lur planeta

Liburu interesgarri eta entretenigarri honek 100 gauza biltzen ditu Lur planetari buruz jakiteko: kamioi bat betetzeko adina plastiko botatzten dugu minuturo itsasoan; lurra usaintsuagoa da euri-zaparraden ondoren; Atacamako basamortuak Marte aztertzen laguntzen du; flamenkoen paradisia arrosa koloreko laku toxiko bat da...




## Hartz eta untxi, hozkada galantak

Untxi Hartzen bila joan da korrika, izututa:

- Basoko zuhaitzak desagertzen ari dira!

Karraska ikaragarri bat entzun da orduan. Izaki erradoi baten hozkada erraldoi bat dirudi. Izaki benetan bitxi bat iritsi berri da ibarrera, eta dena aldatzen saiatzen ari da.



10 urtetik aurrera

## Etxetxorotarrak

Lea eta Mattin neba-arrebak aspaldi konturatu ziren familia bitxia osatzen dutela. Aitari sukaldean aritzea gustatzen zaio, eta etxean beti dago janari usaina; amak, ordea, idaztea eta margo-tzea atsegin du. Goizetan, aitak opilak egiten dizkie egun onak emateko eta amak bertsoak eta olerkiak kantatzen, eskolan ondo pasa dezaten. Etxetxorotarrak dirudite batzuetan.



## Grimpeneko aztia

Stella bainuetxe hotel batean egonaldia egiten ari da, Withering-by-Sea izeneko kostaldeko Herrian. Hiru izebek eta neska-meak ez diote begirik gainetik kentzen, eta aspertuta eta apur bat etsita bizi da. Gau batean, ordea, sekretu arriskutsu baten berri izango du: bere bizia eta lagun batzuen arriskuan jarriko duen sekretu baten berri.



# Amaiur Mayo

## Errugbi jokalaria



Amaiur Mayo 1990an jaio zen Eibarren eta historia egin du aurten Eibar Rugby Taldeko taldekideekin. Mailaz igo ondoren Lehen Mailan jokatuko dute datorren urtean. Euskadiko eta Espainiako selekzioekin jokatu du eta, gainera, psikologia karrera ikasten dihardu. Hori bai energia berea!



### - Itsasoa ala mendia?

Itsasoa.

### - Gazia ala gozoa?

Gozoa.

### - Jatekorik gustokoena?

Kokozko palmera.

### - Gutxien gustatzen zaizuna?

Arrautza frijitua.

### - Umetako oroitzapen polit bat?

Usartzan pasatzen genituen udarako egunak. Bazkari eta guzti joaten ginen familia guztia.

### - Ametsetako oporrak non?

Thailandia ezagutzea izugarri gustatuko litzaidake.

### - Zein gonbidatuko zenuke etxera?

Gertuko edonor gonbidatuko nuke etxera inongo arazorik gabe.

### - Zein ez?

Ezezagunak, berriz, ez nituzke horren erraz ekarriko.

### - Miresten duzun norbait?

Nire neba eta nire ahizpa. Bien-gandik izugarri ikasi dudala uste dut.

### Izena: Amaiur

### Abizena: Mayo

### Jaioterria: Eibar

### Jaiotze-data: 1990



### - Telebistako saio bat?

The Simpsons.

### - Nora ez zinateke inoiz joango?

Poloetara.

### - Kolore bat?

Horia.

### - Zenbaki bat?

15.

### - Animalia bat?

Panda gorria.

### - Kirol bat?

Errugbia, noski.

### - Umetan gustatu zitzaizun pelikula bat?

Disney zalea nintzen, beraz, "Pocahontas" edo "El rey leon".

### - Betetzea nahiko zenukeen amets bat?

Espainiako selekzioaren 7ko modalitatean jokatzea gustatuko litzaidake.

### - Sekula jantziko ez zenukeen arropa?

Behin edo behin jantzi badut ere, ez naiz batere ondo ikusten txapelekin.

### - Eta zure armairuan falta ez dena?

Zapatilak eta bikiniak.

### - Mutil izena?

Xabi.

### - Neska izena?

Izar.

### Umetan gehien gustatzen zitzaizun ikasgaia?

Gorputz hezkuntza eta plastika.

## BITXIKERIAK



Sagarren haziek zianuroa dute. 40 edo 50 jaten baditugu hil egin gaitezke!



Hartz zuriak ezkertiarak dira.



Zelai metro karratu batek pertsona batentzat urtebeterako adina oxigeno sortzen du.



Bangladesh-en 15 urteko umeak gartzelara joan daitezke azterketetan tranpa egiteagatik!



Txinpantzeak, orangutanak, izurdeak, elefanteak eta ... gizakiak dira ispilu aurrean euren burua ezagutzen duten bakarrak.



Thomas Alva Edison bonbila elektrikoaren asmatzaileak beldurra zion iluntasunari.



Izurdeek begi bat itxita egiten dute lo.



Arrautza bat bi telefono mugikorren artean jartzen badugu, egosi egingo da 62 minututan.



Bulgariarrek "bai" burua alde batetik bestera mugitzen esaten dute, eta "ez" goitik behera mugitzen.



Eltxoek hortzak dituzte, 47 hortz.



Eguzkiak argia emateari utziko balio, 8 minutu beharko genituzke horretaz ohartzeko.



Lehenengo palmondoak ipar-poloan hazi ziren.





ipuina

## Nondik datorren “maratoi” hitza

Orain dela 2.500 urte persiarrek armada handi bat osatu zuten eta Maratoneko lautadarantz abiatu ziren, Atenas eta Grezia osoa menperatzeko asmoz. Horregatik, Atenas hiriko zaharrek bildu egin ziren:

- Aurre egin behar diegu persiarrei. Bestela, gure zahar eta emakumeek su emango diete gure Atenas ederrari eta ihes egingo dute.

Persia eta Atenasko armadak Maratoneko lautadan lehiatu ziren. Atenastar soldadu bakoitzeko bederatzi persiar zeuden. Hala ere, Atenaskoek persiarrak azpiratzea lortu zuten. Persiarrek ihes egin zutenean, Miltziades greziar buruzagiak Filipidesi deitu zion.

- Filipides, heu haiz gure



korrikalaririk bizkorrena. Abia hadi Atenaserantz gure agure-emakumeek hiriari su emanda ihes egin baino lehen. Maratonetik Atenaseraino 43 kilometroko bidea dago.

Filipidesek, bere zauriak garbitu eta bere armak hartu ondoren, lasterrari eman zion, eskaini zioten zaldiari muzin eginik. Mendiak igo eta ibaiak zeharkatu behar izan zituen. Bide erdian, bi soldadu persiarren aurka borrokatu beharra suertatu zitzaion. Baina azkenean, neha-neha eginda, Atenas ingurura iristea lortu zuen, bideko oztopo guztiak gainditurik. Hiri barrutik, albo-alboka zetorren giza irudi bat ikusi zuen norbaitek.

- Filipides da! Goazen laguntzera!

Lagunak iristean, Filipides ziplo erori zen, ahapeka zioela:

- Irabazi egin dugu!

Ondoren hil egin zen. Egungo Olimpiar Jokotan, bada proba bat Filipidesen balentria gogora dakarrena. Maratoia, hain zuzen ere, 42 kilometro eta 195 metroko lasterketa luze bezain nehaigarria.

Greziako ipuina



zu margolari